

LEHIAKETETAKO ARAUDI NAGUSI ETA TEKNIKOA

Este documento es una representación del original disponible a través del localizador y la sede electrónica indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako lokalizatzalearen eta egotza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoena.

2023ko otsailaren 8tik INDARREAN



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T4EVD-KSTM
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzalea> / <https://euskadi.eus/localizador>
SINATZAILE / FIRMANTE: GORKA ITURRIAGA MADARIAGA | 2023/03/10 19:12:37

Aurkibidea

| | |
|--|-------|
| 1. Art.- Lehiaketak ospatzeko baimena..... | 3 |
| 2. Art.- Lehiaketan antolaketa..... | 3 |
| 3. Art.- Lehiaketak | 3 |
| 4. Art.- Lehiaketetako sailkapena..... | 3-4 |
| 5. Art.- Txapelketa eta Kopa..... | 4 |
| 6. Art.- Probak..... | 4 |
| 7. Art.- Ontziak..... | 4 |
| 8. Art.- Espezialitateak..... | 4-5 |
| 9. Art.- Zailtasunen baremoa..... | 5 |
| 10. Art.- Ur Lasaiak- Sprint..... | 5-6 |
| 11. Art.- Slalom..... | 6 |
| 12. Art.- Jaitsierak, Igoerak eta Zeharkaldiak | 6 |
| 13. Art.- Maratoia..... | 6-7 |
| 14. Art.- Ur Bizietako Jaitsiera..... | 7 |
| 15. Art.- Kayak Poloa | 7 |
| 16. Art.- Raftinga | 7 |
| 17. Art.- Itsas Kayaka | 7 |
| 18. Art.- Kayak Surf-a | 7 |
| 19. Art.. Estilo Librea | 8 |
| 20. Art.- Herensuge Itsasontzia..... | 8 |
| 21. Art.- Piraguismo egokitua | 8 |
| 22. Art.- Jolas Piraguismoa..... | 8 |
| 23. Art.- Palisten sailkapena. | 8-9 |
| 24. Art.- Benjaminak..... | 9 |
| 25. Art.- Alebinak | 9 |
| 26. Art.- Infantilak..... | 9 |
| 27. Art- Kadeteak..... | 9 |
| 28. Art- Juniorrak/ Jubenilak..... | 9 |
| 29. Art.- 23 urtez azpikoak..... | 9 |
| 30. Art.- Seniorrak. | 9 |
| 31. Art.- Beteranoak/ Masterrak..... | 10 |
| 32. Art.- Partaidetza..... | 10 |
| 33. Art.- Kirolariak..... | 10 |
| 34. Art.- Kirolari euskaldunak..... | 10 |
| 35. Art.- Kirolari atzerritarra: komunitario eta ez komunitario..... | 10-11 |
| 36. Art.- Atzerritar partaidetza nazioarteko lehiaketetan. | 11 |
| 37. Art.- Segurtasun neurriak..... | 11-12 |
| 38. Art.- Klubak..... | 12 |
| 39. Art.- Kluben betebeharrak..... | 12-13 |
| 40. Art.- Kirolariak..... | 13 |
| 41. Art.- Lizentzia..... | 13-14 |
| 42. Art.- Lizentzieng tramatazioa..... | 14 |
| 43. Art.- Tramatazioan Betebeharrak..... | 14 |
| 44. Art.- Baliozkotasuna..... | 14 |
| 45. Art.- Epaileak..... | 14-15 |
| 46. Art.- Lizentzieng ukatzea..... | 15 |
| 47. Art.- Egiaztapena..... | 15 |

| | |
|---|--------------|
| 48. Art.- Palisten identifikazioa..... | 15 |
| 49. Art.- Klub aldaketa..... | 15-16 |
| 50. Art.- Lehiaketa Batzordea..... | 16-17 |
| 51. Art.- Kexak..... | 17 |
| 52. Art.- Apelazioak..... | 17 |
| 53. Art.- Kanporatzeak..... | 17 |
| 54. Art.- Antolaketa..... | 18 |
| 55. Art.- Izenemateak..... | 18 |
| 56. Art.- Garaikurrak | 18-19 |
| 57. Art.- Antidoping kontrolak..... | 19-20 |
| 58. Art.- Material publizitarioa..... | 20 |
| Azken Xedapena..... | 20 |

1. Art.- Lehiaketak ospatzeko baimena.

- 1.1. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan ezin izango da iragarri, antolatu nahiz ospatu piraguismoko lehiaketa ofizialik Euskadiko Kanoe Federazioaren (E.K.F.) aurretiazko baimenik izan gabe. Bere Egutegi Ofizialaren barne dauden txapelketa guztiak baimenduta egongo dira.
- 1.2. Ez ohiko zirkunstantziak direla eta E.K.F.-ren Egutegi Ofizialean jasotzen ez diren esparru autonomikoko lehiaketa ofizial haiiek, Euskadiko Kanoe Federazioaren dagokion baimena eskatu eta erantzuna jaso beharko dute.

2. Art.- Lehiaketen antolaketa.

- 2.1 Lehiaketak E.K.F.-ak, Lurralde Federazioek, klubek eta piraguismoarekin lotura duten pertsona a la erakunde orok antolatu ahal dituzte zeinek behar bezalako baimenarekin kontatuko baitute.
- 2.2. Autonomia eremuko lehiaketetan epaileak Arbitroen Autonomia Batzorde Teknikoak izendatuko ditu.

3. Art.- Lehiaketak.

- 3.1. Ofiziala eta autonomia eremukoa den piraguismoko lehiaketa oro Euskadiko Kanoe Federazioaren Araudiek, Lehiaketa oinarriek, Zirkularrek eta gainontzeko garapen arauek zuzenduko dute.
- 3.2. Araudi hau modalitate guztiei dagokien Araudi bereziekin osatzen da: Ur Lasaiak-Sprint, Igoerak-jatsierako eta Zeharkaldiak, Maratoia, Slalom-a, Ur Amiletako Jaitsiera, Estilo Libre, Rafting-a, Kayak-Surfa, Kayak Poloa, Itsas Kayaka, Herensuge itsasontzia, Piraguismo Egokitua, Jolas Piraguismoa eta I.C.F.-ak ezarritako espezialitateak.

4. Art.- Lehiaketetako sailkapena.

Lehiaketak horrela sailkatzen dira:

- 4.1. Lurraldekoak:** lurralde bateko piraguistentzako gordeta badaude.
- 4.2. Autonomikoak:** autonomia bateko piraguistentzako gordeta badaude.
- 4.3. Estatalak:** Bi Autonomi erkidegoko ala gehiagotako palistek parte hartzen duten lehiaketa haiek dira. Palistek dagokien Kirol lizentzia eduki beharko dute, Lizentziaren Araudiak ezarritako baldintzetan eta Epaile Nagusiak Arbitroaren titulu eduki beharko du.
- 4.4. Nazioartekoak:** Nazioarteko lehiaketatzat hartuko dira beste herrialdeetako Selekzioak edo klubek parte hartzen dutenean. Epaile Nagusiak Nazioarteko Epaile Tituluaren jabe izan beharko du.
- 4.5. Nazioartekotzat jotako lehiaketa orok, ICF edo ECA eko egutegietan barne sarturik egon beharko dute eta beraiei dagokien araudien araberakoak izango dira.

4.6. Kirolari orok, kirol lizentziaren jabe izan beharko du, EKF-ak igorritako eta, EKF-ko erregistroan, lurralte federazioen bitartez erregistraturiko momentutik, estatu zein erkidego mailan efektu izango duen.

5. Art.- Txapelketa eta Kopa.

5.1. Lehiaketa batean txapeldunaren titulua lehiatzen denean, lehiaketak Txapelketa izena du, urtean bat baino gehiago ospa ezin litekeelarik.

5.2. Autonomia Txapelketak esklusiboki Euskadiko Kanoe Federazio honetako piraguistenzako dira.

5.3. Urtero, Txapelketa gainera, espezialitate ezberdinetan Euskadiko Kopak ospatu ahal izango dira.

6. Art.- Probak.

6.1. Proba deitzen zaio lehiaketa bateko ataletako bakoitzari zein bere horretan lehiaketa independentea bezala konsideratu ahal izango bailitzateke.

Adibidez: K-1 senior 1000 metroko proba, K-1 junior 5000 metroko proba, etab.

6.2. Inolako probak ez du baliorik bertan irteten ez badira, gutxienez, maila, ontzi eta distantzia berean bi klub edo federazio autonomiko ezberdinako hiru ontzi.

7. Art.- Ontziak.

7.1. Araudiko ontziak ondorengoak dira:

7.1. 1. K-1, K-2 eta K-4

7.1.2 C-1, C-2, C-4, V1 eta OC-1

7.1.3. Rafting-erako baltsa neumatikoak

7.1.4. Herensuge itsasontziak.

7.1.5. SS-1 eta SS-2

7.1.6. SIP Canoa ontziak eta Kayak Surf

7.1.7 Squirt

8. Art.- Espezialitateak.

Piraguismoko espezialitaterik nagusienak ondorengoak dira:

8.1. Ur lasaiak-Sprint.

8.2. Slalom-a

8.3. Igoera, Jatsiera eta Zeharkaldiak.

8.4. Maratoia.

8.5. Ur Amiletako Jatsiera

8.6. Polo Kayak

8.7. Raftinga

8.8. Itsas Kayaka

8.9. Kayak Surfa

8.10. Estilo Librea

8.11. Herensuge itsasontzia

8.12. Piraguismo Egokitua

8.13. Jolas piraguismoa

8.14. ICF-ak ezarririko modalitateak.

Edonolako lehiaketaren sailkapena E.K.F.-ri dagokio, edozein espezialitateko izanda ere, zeinek hau zein uretan burutzen denaren arabera definituko baitu.

9. Art.- Zaitasunen baremoa

Ibilbideen trazaturako zaitasunari dagokion nazioarteko balioztatze batzuk ezartzen dira, ondoren adierazten den bezala:

9.1. I Maila: Erraza. Nabigatzeko inolako zaitasunik gabeko ur lasaiak.

9.2. II. Maila: Zaitasun txikiak, korronte, presak eta zaitasunik gabeko azkarrak. Pista- ala abiadura-ontzietarako ez-gomendagarria. Salbamendu-jaka eta kaskoa erabiltzea gomendatzen da.

9.3. III. Maila: Nabigazio zaila. Maila honetatik aurrera kaskoa eta salbamendu-jaka erabiltzea nahitaezkoa da. Korronte bizia, azkar libreak, ontzia menderatzea eskatzen dute. Pista- ala abiadura-ontzietarako desegokia.

9.4. IV. Maila: Oso zaila. Baino entrenatutako palistentzako arriskurik gabe. Pista- ala abiadura-ontzietarako desegokia. Salbamendu-jaka eta kaskoa erabiltzea nahitaezkoa da.

9.5. V. Maila: Nabigazio oso zaila. Arriskutsua. Behar bezala entrenatutako eta prestatutako palistentzako soilik. Pista ala abiadura-ontzietarako desegokia. Salbamendu-jaka eta kaskoa erabiltzea nahitaezkoa da.

9.6. VI. Maila: Iraganezina. Praktika ezina. Nabigazioa ezinezko da.

10. Art.- Ur Lasaiak-Sprint.

10.1. Lehiaketa batzuk dira zeinetan irteera lerrokatutako ontziei eta beti ur lasaietan ematen baitzaie, ahalik eta denbora-eperik laburrenean oztoporik gabeko distantzia bat ibiliaz. 200, 500 eta 1000 metroko distantziak olinpikoak, Sprint-ekoak bezala onartzen dira.

10.2. 2000, 3000 eta 5000 metrotan , hala nola, araudi espezifikoak onarturiko bestelako distantzietan ere aritzea egongo da, zirkuitu batean edo lerro zuzenean burutuko delarik.

11. Art.- Slalom.

11.1. Slalom-eko lehiaketa honen helburua ur bizietan ibilbide bat igarotzea da, ezaririko ate kopuru bat, ahalik eta denbora-eperik laburrenean burutuz.

11.2. Slalom-eko ibilbideak ur bizietan adierazten dira, hau da, III, IV eta V. Mailako nabigazio-zaitasunei eta ibaiko oztopoei beste artifizial batzuk eransten zaizkie, atekiko independenteak, ez baitira oztopo.

11.3. Ibilbideak 250 metroko gutxieneko luzera bat izan behar du, zein irteera-lerrotik helmuga-rroraino (erdiguneko lerroa jarraituz) neurruko baita, eta gehieneko 400 metroak ez gainditzea gomendatzen da. Halaber lehiakideentzako gutxienez 100 metroko beroketa-eremu bat egon behar du, eta helmuga-erroaren ondoren erlaxazio-gune bat ere bai.Ibilbideak ate kopuru zehatz bat izango du, EKF-tzako araudiak zehaztuko duena. Azkeneko atea eta helmuga-erroa bitarteko distantziak ez du 15 metro baino gutxiagokoa nahiz 25 metro baino gehiagokoa izan behar.

11.4. Ibilbidea erabat nabigagarria izan behar du eta C-1ean palista eskuin nahiz ezkerrentzat baldintza berdinak eskaini behar ditu.

11.5. Slalom-a olinpikoa bezala konsideratzen da.

11.6. Salbamendu jaka eta kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da.

12. Art.- Jaitsierak, Igoerak eta Zeharkaldiak

12.1. Ibaietako lehiaketak, korrontearen kontra edo alde arituz ospatzen direnak dira. Etapa bat ala gehiagotan burutzen dira, dauden naturalak (I eta II. Maila) baino oztopo nahiz zaitasun gehiagorik gabe, denborak neurrtuta.

12.2. Zeharkaldiak, itsasoan, lakuetan, urtegietan etab. etan ospatzen dira. Etapa bat ala gehiagotan burutzen dira, dauden naturalak (I. Maila) baino oztopo nahiz zaitasun gehiagorik gabe, denborak neurrtuta.

12.3. Salbamendu jaka erabiltzea derrigorrezkoa izango da egoerak horrela eskatzen duenean.

13. Art.- Maratoia.

13.1. Maratoiko estropadetan lehiakideak ahalik eta denborarik urrienean distantzia luzeko ibilbide zehatz bat estali beharko du, agindu estandarrak betetzen ez diren uretan.

13.2. Ur hauei dagokionean, aurkitzen dituen bezala egingo diete aurre eta prestatuta egon beharko da, beharrezkoa balitz, oztopoa nahiz porteo zeharkatuz, ala bi ur-laster artean bere ontzia eramateko.

13.3. Ibilbidean zehar, partehartzaileak aurrez ezarririko porteo kopuru zehatz bat burutu beharko du, non kirolariari elikagaiez hornitzea egongo delarik.

13.4. Porteoaren ibilibideak gutxienez 100m beharko ditu izan eta gehienez ere 300m.

13.5. Salbamendu jaka erabiltzea derrigorrezkoa izango da egoerak horrela eskatzen duenean.

14.- Ur Bizietako Jaitsiera

14.1. Jaitsiera, lehiaketa bat da non lehiakide batek ur bizietan III, IV edo V zaitasunekoetan, ontzi baten barnean, aldez aurretik ezarririko ibilbide bat ahalik eta denbora gutxienean burutzean datza.

14.2. Arauzko salbamendu-jaka eta kaskoa erabiltzea nahitaezkoa da.

15. Art.- Kayak Poloa.

15.1. Polo Kayak modalitatea bost jokalarik osatutako bi talderen arteko pilota-joko lehiakor batean datza. Partaideak, kayak eta pala batekin hornituta, aurkariaren atean golak sartzen saiatzen dira.

15.2. Arauzko kaskoa eta salbamendu-jaka erabiltzea nahitaezkoa da. Hala nola, aurpegia babesgarria.

16. Art.- Rafting-a.

16.1. Ur bizien agertokitan garatzen da, ibilbideko oztopoak baltsa neumatiko batean gaindituz, bere elementu propultsatzailea pala simple bat izanik. III, IV eta V zaitasun mailako uretan burutzen da.

16.2. Arauzko salbamendu-jaka eta kaskoa erabiltzea nahitaezkoa da.

17. Art.- Itsas Kayaka.

17.1 Piraguismoko espezialitate bat da zein itsaso, estuario, errio, eta abarretan burutzen baita, ontzi bereziak erabiliaz.

17.2. Arauzko salbamendu-jaka erabiltzea nahitaezkoa da.

18. Art.- Kayak Surf-a.

18.1. Olatuen indarra aprobetxatuz piragliistaren eboluzioak dira, ahalik eta denbora gehien olatuek bultzata mantentzen saiatzean datzalarik eta pala propultsio bide bakarra izanik.

18.2. Arauzko salbamendu-jaka erabiltzea nahitaezkoa da.

19. Art.- Estilo Librea.

19.1. Estilo Libreko lehiaketaren helburua ahalik eta maniobra gehien burutzea da, denbora zehatz batean zehar ahalik eta puntu gehien lortzeko, ur bizietako olatu ala kizkur batean.

19.2. Arauzko salbamendu-jaka eta kaskoa erabiltzea nahitaezkoa da.

20.- Herensuge itsasontzia.

20.1. Kanoa ireki batean burutzen den espezialitatea. 10 eta 20 palistek bultzaturik pala simple bat erabiliz. Tripulazioa erritmoa markatzen duen eta lemazainak ere osatzen dutelarik.

21.- Piraguismo egokitua.

21.1. Gaigabezia dun eta piraguismoko probetan parte hartzeko abilezia duen pertsona orori zuzendua, arauturiko edo egokituriko ontziak erabiliaz.

21.2. Kategoria honetan parte hartu ahal izateko beharrezko da EKF-tzan Gizarte segurantzako ez-gaitasun ziurtagiria aurkeztea eta behin behineko Sailkatze mahaieren arabera kategoria zehaztu izana, sailkatze mahaia presentzial nazional edo nazioartekoan. Behin behineko sailkapena aldi baterako izango da, soilik buruturiko denboraldirako.

22. Art.- Jolas Piraguismoa

22.1. Piragua batengan eginiko edozein jardueran datza, edozein inguru nabigagarrian buruturikoa, lehiatzeko asmorik gabe, etapa batean edo gehiagotan burutzen dena eta denborarik hartzen ez dena.

22.2. Salbamendu-jaka erabiltzea nahitaezkoa da.

23. Art.- Palisten sailkapena.

23.1. Piraguista piragua bateko tripulatzalea da, erabiltzen duen ontzi mota edonolakoa izanda ere. Piraguistak martxaren noranzkoan nabigatzen du eta piragua (kanoa edo herensuge itsasontzia) pala simple batekin ala bikoitzarekin (kayak) bultzatzen du. Palak ezingo dira inola ere ontzian finkatuta egon.

23.2. Kayakista: Kayak bateko tripulantea da.

23.3. Canoelaria: Canoa edo herensuge itsasontzi bateko tripulantea da.

23.4. Rafter: Baltsa bateko tripulantea da.

23.5. Piraguistak jarraiki, horrela sailkatzen dira:

23.5.1. Gizonetakoak

23.5.2. Emakumeztakoak

23.6. Bere abileziaren arabera, piraguista ICF-ak estimaturiko eta dagokion kategorietan ezarriko da, Kayak Bereziko kategorian, EKF-tzako piraguismo egokituan parte hartu ahal izateko.

23.7. Adinaren arabera honako mailak ezartzen dira:

- Benjamínak
- Alebinak.
- Infantilak
- Kadeteak
- Juniorrak
- 23 Urtez azpikoak
- Seniorrak
- Beteranoak/ Masterrak

Eta kayak polo espezialitatearen araudian ezarritakoak, Kanoako Nazioarteko Federazioaren araudiaren arabera lehiaketa-beharren arabera:

- 16 urte azpikoak: 16 urtetik beherakoak edo urte naturalean 16 urte betetzen dituztenak.
- 21 urte azpikoa: Urte naturalean 19 urtetik 21 urte betetzen dituzten palistak dira.

24. Art.- Benjamínak

Indarrean dagoen urte naturalean 9 eta 10 urte betetzen dituzten palistak dira.

25. Art.- Alebinak.

Indarrean dagoen urte naturalean 11 eta 12 urte beterik dituzten palistak dira.

26. Art.- Infantilak.

Indarrean dagoen urte naturalean 13 eta 14 urte beterik dituzten palistak dira.

27. Art- Kadeteak.

Indarrean dagoen urte naturalean 15 eta 16 urte beterik dituzten palistak dira.

28. Art- Juniorrak/ Jubenilak.

Indarrean dagoen urte naturalean 17 eta 18 urte beterik dituzten palistak dira.

29. Art.- 23 urtez azpikoak

Indarrean dagoen urte naturalean 19 urte eta 23 urte bitarte beterik dituzten palistak dira.

30. Art.- Seniorrak.

Indarrean dagoen urte naturalean 24 urte edo gehiago betetzen dituzten palistak dira eta aurreko artikuluetan barne hartzen ez dituztenak.

23 urte baina gehiagoko palistak dira eta aurreko artikuluetan barne harturikoak ez direnak.

31. Art.- Beteranoak/ Masterrak.

31.1. Beteranoen/ Masterren maila kirolzale batek 35 urteak betetzen dituen urtetik lortzen da. Adin honetatik aurrera talde ezberdinak egongo dira, talde bakoitzak 5 urte hartzen dituelarik. Adibidea: 35 urtetik 39 urtera, 40tik 44 urtera, 45etik 49 urtera, etab.

31.2. Talde berezi batean lehiatu ahal den urtea, kirolzaleak urteak betetzen dituen hura da.

32. Art.- Partaidetza.

Palista guztiak bere mailan eta berehalako goragokoan parte hartu ahal izango dute, kasu hauetan izan ezik:

32.1. Infantil, Alebin eta Benjaminek, zeinek bere mailan soilik egin ahal izango baitute, salbuespen Kayak Poloko txapelketak, non infantilek kadete mailan izenamatea izango duten.

32.2. Kadeteak, Maratoiko lehiaketetan, bere mailan soilik egin ahal izango dute eta bere espezialitateko araudiek horrela ezartzen dutenetan.

32.3. Juniorrek, senior mailan aritzea izango dute, txapelketan, 23 urtez azpiko kategoria espreski deitzen ez denean.

32.4. Senior eta Beteranoak zeinek goragoko maila batean ezin egin ahal izango baitute.

32.5. Beteranoek/Master-ek beti dute Senior mailan parte hartzeko eskubidea.

32.6. Lehiaketa mistoak, Euskal Kanoe Federazioaren dagokion erregelamendu-arauan araututa egongo dira.

32.7. Maila absolutua ez da existitzen.

33. Art.- Kirolariak.

33.1. Palista batek kirolzale bezala indarrean baimen bakarra izan ahal du.

34. Art.- Kirolari euskaldunak.

34.1. Autonomia eremuko edonolako lehiaketa ofizialean parte hartzeko, kasu bakoitzean eskaturiko baldintza espezifikoak betetzeak gain, indarrean dagoen eskumen markuarekin bat, beharrezkoa da palista oro Euskal Federazioak emandako lehiaketa-lizentzia edukitzea. Lizentziak esparru estatu mailan zein erkidego mailan izango du efektua, EKF-tzako erregistroan inskribaturiko unetik.

34.2. Aurreko ataleko baldintzak betetzen ez dituen palista oro izenemate unean kanporatua izango da.

35. Art.- Kirolari atzerritarak: komunitario eta ez komunitario

35.1. Palista atzerritar orok, Europar Batasuneko estatu bateko kide edo Espazio Ekonomiko Europearreko kidekoak, EKF-tzako Egutegi ofizialeko lehiaketetan parte hartu ahal izango du, Euskal Autonomia erkidegoko klub baten kide gisa, jatorrizko federazioan indarrean lizentziarik ez duenaren ziurtagiria aurkeztuz gero, eta EKF-tzak emandako lehiaketa lizentzia izanez gero.

35.2. Atzerriko palista ez komunitario orok, E.K.F.-ko Egutegi Ofizialeko lehiaketetan parte hartu ahal izango du Euskal Autonomia erkidegoaren klub bateko kide bezala, Piraguismoko Euskal Federazioak emandako lehiaketa-lizentzia badauka, jatorrizko federazioaren indarrean baimenik ez duenaren ziurtagiria eta EspaÑan bizileku legala eskatu izanaren agiriak aurkeztu beharko ditu.

35.3. Kirolari komunitarioak lehenago beste herrialde bateko piraguismo federazioan baimenik izan ez badu, zinpeko deklarazio bat aurkeztu beharko du, hori ziurtatzen duena, EKF-tzako egutegik proba batean, euskal klub batekin parte hartu ahal izateko, baimena eskuratu aurretik.

36. Art.- Atzerritar partaidetza nazioarteko lehiaketetan.

36.1. Atzerritarrek RFEP-lako egutegian, EspaÑan ospatuko den, nazioarteko froga gisa agertzen den frogan parte hartzea izango du, izenemate unean, jatorrizko lurraldoko federazioaren baimena aurkeztuz gero, hala nola, pertsona bera dena baiezatzen duen agiria, federazio arteko hitzarmena egon ezean. Txapelketa Batzordea izango da arau hauste honen erantzulea.

36.2. Nazioarte mailan aritzea izango dute, dagokion EspaÑako federazioari atxikirik dauden klubetako kirolariak, eta aldi berean, EspaÑako Federazioa FIC eta ECA-n atxikirik egongo delarik. Partehartzaile guztiak amateur-ak izan behar dute eta FIC eta ECA-ko araudia bete behar dute.

36.3. Kirolari batek nazioarte mailako txapelketa batean, bere EspaÑako Federazioaren izenean parte hartzeko eskubidea du, beti ere, aurreko parrafoekin kontraesanik ez bada.

37. Art.- Segurtasun Neurriak.

37.1. Ontziak behar adina flotazio-elementu eraman behar ditu azaleran mantentzeko, baita urez beteta badago ere, erabiltzailea bera izango delarik erantzule.

37.2. Nahitaezkoa da beste bat arrisku egoeran ikusten duen lehiakide orok bere aldetik ahal duen laguntza guztia ematea, aurkako kasuan deskalifikatua izan ahal da.

37.3. Igeriketa menderatzen ez dituzten palistentzako erabat debekatuta dago piraguismoa praktikatzea. Xedapen honen arau haustearren erantzule eta honek dakartzan ondorioen erantzule kirolariaren kluba izango delarik.

37.4. Piraguista oro, zinpeko deklarazioaren bitartez, ur-ingurunea menderatzen duela egiaztatzen behartuta dago lehenengo aldiz federazio-lizentzia ematerakoan eta istripuak aurreikusterakoan segurtasun neurriak hartzen, baita ontziak esleituta dituzten helburuetarako erabiltzera ere.

38. Art.- Klubak.

38.1. Klubagatik elkartea oro ulertzan da, zein indarrean dauden kirol-izaerako lege-xedapenei jarraiki eratzen baita, bere helburuen artean Piraguismoa praktikatzea eta kirol honekiko zaletasuna sustatzea egongo delarik.

38.2. EKF-tzako lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da lizentzia klubeko Presidente edo ordezkari legalak sinatu izana.

38.4.3 izenemate berriko klubek, denboraldiko edozein momentutan eskatu ahal izango dute beraien lizentzia.

39. Art. Kluben betebeharra.

39.1. Araudi hau eta EKF-tzako araudiak, bere propioak zein dagokien lurralte federazioenak, zorrozki asmo onez betetzea .

39.2. Federazioko organismoen mendean daudenen autoritateari men egin.

39.3. EKF-tzaren lehiaketetarako beharrezko denean, instalazioak bere erabilerarako utzi.

39.4. Federazioko kuota, ordainarazpen eta isunak ordaintza.

39.5. Disziplina ez hautsi, eta bata eta bestearen artean, ez sortu zuzenean edo zeharka egoerarik non bidegabekeria edo trabarik eragingo duen, pertsona, talde edo lokalei, bortizkeriz edo gorrotoz, benetako kiroltasunezko ekintzen bidez, aurre eginez, eta ahalik eta baliabide egokienen eta eraginkorren bitartez neutralizatzu.

39.6. Goragoko instantziatik jasotako komunikazioei puntualki erantzun, eta araudiak arauturiko eta eskaturiko datuak erraztuz.

39.7. Klub guztiekin, beraien xedeak eta izaera juridikoa edozein izanda ere , Kirol Kluben Erregistroan izena eman beharko dute.

39.8. Klub baten kirol mailako errekonozimendua, aurreko atalean aipaturiko erregistroko izenematearen ziurtagiriaren bidez egingo da.

39.9. Autonomia mailako txapelketa ofizialetan parte hartu ahal izateko, klubek lehenago EKF-tzan erregistratu beharko dute.

39.10. EKF-tzan izena emandako klubek, denboraldi bakoitzaren hasieran, beraien Zuzendaritza Batzordearen osaketaren berri eman beharko dute, inondik inora kluba bateko Zuzendaritza Batzordeko kide batek, beste klub bateko Zuzendaritza Batzordean ezingo duclarik egon.

40. Art.- Kirolariak

40.1. Kirolariaren konsiderazioa dauka piragismoaren jarduneko praktikarako Autonomia Federazioaren bidez inskribatu den pertsona natural oro, E.K.F.-ren diziplina eta babespean geratuz.

40.2. Autonomia eremuko kirol-jarduera ala lehiaketetan parte hartzea, nahitaezkoa izango da EKF-tzako igorritako lizentzia autonomikoa edukitzea.

41. Art.- Lizentzia.

41.1. Lizentzia mota bakarra existitzen da:

- Autonomia Federazioak emandako lizentziak.
- Euskadiko Kanoe Federazioak emango ditu, Lurralde Federazioek trimitaturiko Teknikari, zuzendaritzarik eta arbitroentzako lizentziak.

41.2. Edozein lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko, kasu bakoitzean eskaturiko baldintza espezifikoak betetzeaz gain, indarrean dagoen marko konpetentzialarekin bat eginez, derrigorrezkoa izango da, kirol lizentzia autonomikoa izatea, EKF-tzak igorriko duena, araudi bidez baldintza eta betebeharrik ezarriko direlarik. Lizentziak estatu eta autonomia mailako balioa izango du, EKF-tzako erregistroan, Lurralde Federazioen bitartez erregistraturiko unetik aurrera.

41.3. Autonomia Federazioak emandako lizentziak, lehiatzeko edo bestelako jardueretan ofizialetan aritzeko, honako hiru kontzeptuak islatu beharko ditu derrigor:

- Nahitaezko aseguruaren zenbatekoa.
- Piraguismoko Euskal Federazioaren kuota.
- Piraguismoko lurrealde Federazioaren kuota.

41.4. EKF-tzako urteroko Batzar Nagusian ezarriko dira, kirol espezialitate bakoitzarentzat, estamentu bakoitzarentzat eta kategoria bakoitzari dagozkien kuotak.

41.5. Benjamin eta alebin kategoriek kuota ezberdina izan ahalko dute.

41.6. Lizentzia eskatzen duten lehiakide orok, igeri egiten jakin beharko du.

41.7 Derrigorrezkoa da, kirolari, teknikari eta epaileek lizentzia berria edo lizentzia berrikuntza sinatzea.

41.8. Lizentziatan Euskadiko Autonomi Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira nahitaez.

42. Art.- Lizentziaren trimitazioa.

42.1. Lizentzia Berriak

42.1.1. Lizentziaren trimitazioa Lurralde Federazioek burutuko dute sistema informatikoa bidez. EKF-tzak euskarri informatikoa bat erraztuko

du hori horrela izan dadin, eta bertan kiolariei, klubei, epaileei eta entrenatzaileei dagozkiengau datuak sartuko dituztelarik.

42.1.2. Klubek, kiolariek, teknikariek eta epaileek, EKF-tzari idatziz jakinarazi beharko diote lizentzian hasiera batean azaltzen diren datuen aldaketarik egongo balitz, hurrengo denboraldian, derrigor, lizentzia zenbakia eta antzinatasuna mantenduz lizentzia berri bat betez.

42.2. Lizentzia berrituak

42.2.1. Lizentzia berrituek, aurrek atalean aipaturiko sistema berbera jarraituko dute, lizentzia berrien modura, dagokien epeak betez.

42.2.2. Lurralde Federazioek burutu beharko dute lizentziengau kuoten kobrantza.

Beti ere, Lizentziengau jasotako baldintzetan.

43. Art.- Tramitazioan betebeharra

43.1. Lizentziangau agertzen diren datuak, argazkia barne, babestuak izango dira eta Datuen Babeserako izaera pertsonaleko datuen legeak ezarritakoaren arabera izango dira EKF-tzarengandik tratatuak.

43.2. Datuen Babeserako izaera pertsonaleko 15/1999 Lege Organikoa betez, interesdunak derrigor sinatu beharko du lizentzia eta EKF-tzaren datu pertsonalen tratamenduaren adostasuna, betekizun hau bete gabe, ezin izango da lizentzia bideratu.

43.3. Adin txikikoenen Teknikariek zein epaileek, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, delitu horiengatik zigorrik jaso ez dutela egiaztatzen duena.

44. Art.- Baliozkotasuna.

Federazio lizentzia emana izan zen urteko urtarrilaren 1an hasi eta abenduaren 31 artean ospatutako lehiaketetan parte hartzea zilegi egiten du, denboraldiko edozein garaitan eskatu ahal bada ere. Bere balioa abenduaren 31n amaitzen da, data zeinetan dauden guztiak iraungita kontsideratuko baitira.

45. Art.- Epaileak

45.1. Lehiaketak bere behar bezalako garapenerako beharrezko epaileen ikuskapenarekin ospatu behar dira, eta gutxienez bi ofizialekin, zeinetako batek Epaile Nagusi bezala jardungo baitu.

45.2. Epaile Nagusiak lehiaketa behar bezala eta E.K.F.-ko araudieiekin nahiz lehiaketa propioaren araudiari jarraiki garatuko dela ziurtatu behar du.

45.3. Lehiaketa Akta, non berari dagozkiengau datuak, hala nola txostena eta egondako emaitzak, elaboratu eta FVP-ra bidaltzeko arduraduna izango da lehiaketa amaitzen denean.

46. Art.- Lizentzien ukatzea.

- 46.1. E.K.F.-ak lehiaketako lizentzia bat ematea ukatuko balu, era justifikatu batean, Lurralde Federazioan jakinaraziko du, eta aldi berean, klubean jakinaraziko du zeinetan piraguistak bere eskaera burutu baitu.
- 46.2. Lizentzia ukatuko balitz, Lizentzien Araudia eta Araudi honetan ezarritako baldintzak ez betetzean oinarrituko da, dagokion tramite prozedimentalak jarraituz, piraguista honek lehiaketetan parte hartu ahal ezin izan dezan beharrezko neurriak hartuko dira. Hala ere, lehiaketaren batean parte hartuko balu, bere emaitza baliogabetu egingo litzateke, legokiokeen zigor-espedientea irekiko zitzaielarik bai kirolzaleari eta bai dagokion klubari.
- 46.3. Dopingagatik zigortuak izan diren kirolari eta gainontzeko estamentuetako pertsonak, kirol lizentzia eskuratzeko eta piraguismoko lehiaketetan parte hartzeko ezgaituak izango dira. Bai erkidego zein estatu, zein nazioarte mailan, dagokion zigorra betetzen duen bitartean.

47. Art.- Egiaztapena

- 47.1. Euskadiko Kanoe Federazioko epaile eta ordezkariek partaideei kirol lizentzia aurkeztea eskatu ahal izango diete, edonolako probaren aurretik, bere garapenari dagokion beste edozein unetan ere eskatu ahal izanik.
- 47.2. Bere misioa, Araudi hau eta bestelako arau federatiboak errespetatu araztea da. Kirol lizentziaren aurkezpena, lehiaketako antolatzaileek eskatzea izango dute izenemate unean.

48. Art.- Palisten identifikazioa.

Identifikatzeko helburuarekin, Epaile Nagusiak edozein unetan eskatu ahal izango du, lehiaketako lizentziarekin batera, N.A.N. ala kirolariaren pertsonalitatea egiaztatzen duen beste edonolako dokumentu.

49. Art.- Klub aldaketa.

- 49.1. Kirol lizentziaren baliozkotasuna amaitzean, palista oro libre izango da beste edozein klubekin lizenzia berria tramitatzeko, salbuhespena, adin nagusikoa izatea eta lan-kontratu bat izatea medio.
- 49.2. Adin txikiko palista baten kasuan, beste herrialde batetara aldatuz gero bere helbidea gurasoen lana edo familia kontuak direla eta, ikasketak edo norberaren lanagatik, behar bezala egiaztatuz gero, EKF-tza edo/eta RFEP-tzan, helbide berriari dagokion klub batekin lizentzia harpidetuz.

50. Art.- Lehiaketa-Batzordea.

- 50.1. Lehiaketa bateko autoritate gorena Lehiaketako Batzordeari dagokio zein hiru Ofizialek eratuko baitute:

- Epaile Nagusia

- Lehiaketako zuzendaria Autonomia Federazioak esleitutakoa

- Beste Ofizial bat, bertako antolatzaileak esleitutakoa

50.2. Gutxienez, Lehiaketa Batzordeko bi kidek epaile izan beharko dute, lizentzia indarrean izanez.

50.3. Lehiaketako Batzordea lehiaketa hasi aurreko bilera teknikoan eratzen da, eta sari-banaketa amaitzen denean desegiten da.

50.4. Lehiaketa-Batzordearen betebeharra da:

- a) Lehiaketaren antolaketa eta bere garapena gainbegiratzea.
- b) Eguraldi txarrak ala aurreikusi gabeko beste hainbat zirkunstantziek lehiaketaren garapena ezinezkoa balitz, egunez aldatzea ala bertan behera uztea.
- c) Aurkezten diren erreklamazioak artatu eta sortu ahal diren gatazkak konpontzea.
- d) Lehiaketan zehar Araudia bete ez bada deskalifikazio bati dagozkion auziei buruz erabakitzea.

50.5. Lehiaketako Batzordeak beste edozein lehiakide, teknikari, talde buru, zuzendaritzako kide ala arbitroen arreta deitu ahal du, zeinen portaera lehiaketa behar bezala garatzeko eta zuzentzeko kaltegarria izango baita. Lehiaketako Batzordeak deskalifikatu egin ahal izango lituzke jarrera oker hau errepikatuko balitz.

50.6. Batzordearen erabakia E.K.F.-ren Araudietan oinarrituta egongo da.

50.7. Araudiko edonolako arau-hausteri dagokionean erabaki bat hartu aurretik, salatu duen epailearen iritzia entzungo da. Era berean, probaren beste epaileen iritziak entzungo dira, beharrezko balitz eta ekintzak argitza zilegi egingo balu.

50.8. Lehiaketako Batzordeko kide batek deskalifikazio erabaki batekin implikatuta dagoen klub bati badagokio, auzi horri dagokionean Araudia aplikatzerakoan bere funtzioa bertan behera utziko da. Epaile Arbitroaren botoa ebazlea da berdinketaren kasuan.

50.9. Lehiaketako Batzordeko kideak une orotan eskuragarri egon behar dute gertatu ahal litekeen lehiaketako edozein arazoren aurrean berehala jokatu ahal izateko.

51. Art.- Kexak

51.1. Lehiaketan eginiko erreklamazio oro, idatziz, Lehiaketako batzordera igoり beharko da eta Epaile Nagusiari eskura emango zaio sailkapenak jakinarazi ondoren ala Taldeko Burua bere lehiakide ala taldearen aurka hartutako erabakiaz informatua izan eta jaso izanaren adierazpena sinatu ondoren gehieneko 20 minutuko epe batean. Ez agertzea edo notifikazioa ez jasotzeak ez du bera betetzetik salbuesten.

51.2. Erreklamazio guztiak idatziz aurkeztuko dira eta 20€-ko tasa batekin lagunduko dira; erreklamazia estimatzen bada, tasak itzuli egingo dira.

52. Art.- Apelazioak.

52.1. Partaideek eta gainontzeko interesatuek, Lehiaketako Autonomia Batzordeari edo Epaile Bakarrari Lehiaketa ospatu ondorengo 48 orduetan erreklamatzeko aukera izango du, Epaile Bakarraren konpetentzia diren Disziplina gaiei dagokienean, Euskadiko Kanoe Federazioaren Lehiaketa Autonomia Bartzorde eta Diziplina-Erregimena errekurritzeko eskubidea du, Araudi honetan ezarritako 51. Artikuluko Lehiaketa Batzordearen egin beharren inguruko gaiei dagokienean, lehiaketa-dataren ondorengo 10 eguneko epearen barnean.

52.2. Apelazioa 60€.-rekin batera burutuko da eta apelazioa estimatuko balitz kopurua itzuli egingo da.

53. Art.- Kanporatzeak

53.1. Legezko baliabideez kanpoko beste edonolako prozeduraren bidez proba bat irabazten saiatzen den, Araudiak errespetatzen ez dituen nahiz bere jarrerarekin Araudi horiekiko mespretxua adierazten duen lehiakide oro, lehiaketa osorako deskalifikatua izango da.

53.2. Bere ontzia aztertzerakoan, proba amaitu ondoren, E.K.F.-ak araututako mugiegi dagokionean irregularitasunak antzemango balira, lehiakidea deskalifikatua izango da. Deskalifikazio honek proba zehatz horri eragiten dio.

53.3. Deskalifikazio guztiak dauden arrazoia adierazita berehala idatziz jakinarazi beharko dira. Taldeko Buruak ordu zehatza dakarren kopia bat jaso izanaren adierazpena aurkeztuko du, zein erreklamazio-denboraren hasiera baita.

53.4. Modu desegokian portatzen den lehiakide oro deskalifikatu ahal da, ala bere hizkuntza nahiz jarreragatik ofizial, beste lehiakide nahiz ikusleei dagokionean mespretxua ala errespetu falta erakusten duen orori.

54. Art.- Antolaketa.

54.1. Autonomia eremuko lehiaketetan antolatzaileak ala lehiaketan laguntza teknikoa ematen duen erakundeak, nahitaez, gutxienez, ondorengo baliabideak ekarri beharko ditu:

- Erantzukizun zibileko poliza bat izenpetuta izatea eta E.K.F.-ren aurrean hau egiaztatzea.
- Lehiaketaren beharrak estaltzen dituen megafonia.
- Medikua eta anbulantzia.
- Lehiaketan, bere behar guztiei dagokionean, laguntza bermatzen duten pertsonala eta behar adina baliabide dituen bulegoa.

- Hala eskatzen duten espezialitatetan, dortsalak, oholtxoak eta/edo eranskailuak.
- Partaideen segurtasun fisikoa bermatzen duten salbamendu-baliabideak.
- Lehiaketako guneko araudi-balizajea.
- Ontziak eta epaileek bere betebeharra burutu dezaten egokiak diren behar adina baliabide.
- Eskuzko programa eta lehiaketako gunearren plano bat, klubentzako eskuragarri egongo direnak.
- Epaileei, lehiaketako momentu bakoitzerako beharrezkoak diren dokumentuak entregatuko zaizkie.
- Partaideentzako zerbitzuak, aldagelak eta ontziralekuak.
- Emaitzak eta gainerako jakinarazpen ofizialak azaltzeko iragarki-taula.
- Instalakuntzak kirolari zein ikusleentzako irisgarria izan behar du.

54.2. Edonolako lehiaketako antolatzailak E.K.F.-ra, dagokion araudia bidali beharko du E.K.F.-ren izaera ofizialeko egutegian eta autonomia eremuan hau barne hartzeko eskatzen denean.

55. Art.- Izenemateak

55.1. Izenemateak EKFren sistema informatikoaren bidez egingo dira. Lehiaketaren oinarietan jasotako epeen arabera, bide horretatik egin ezin diren proba edo espezialitateetan edo sistema informatikoa erabilgarri ez dagoenean izan ezik, kasu horretan posta elektronikoz inskribatu ahal izango baitira.

55.2. Epez kanpo iristen den inskripzio bat errefusatua izan ahal da.

56. Art.- Garaikurrak

56.1. Antolatzailak maila/modalitate bakoitzean sailkatutako hiru lehenengo kirolariei saria emango diete, baita lehiaketaren sailkapen nagusian lehenengo hiru postuak betetzen dituzten taldeei ere. Garaikurrak, lehenago erakutsi egin beharko dira, lehiaketako izena, eta dagokion maila eta modalitatea bertan inprimaturik izan beharko dutelarik.

56.2. Saritutako kirolariek, nahitaez, bere saria ordezkatzen duten Klub edo Federazioari dagokion kirol jantziarekin jaso beharko dute.

56.3. Frogatua izan den kasuetan, irabazleak ezin duela saria jaso, derrigor bere Talde Buruak jaso beharko du. Eta honek ere ezingo balu, eta sari banaketa unean jasotzerik izango ez balu, ez litzateke saria beranduago emango eta antolatzaillek dirulaguntzaren zati bat kentzea izango lukete. Gainera, izaera disziplinarioko erantzunkizunetan eror daitezkeelarik, bai kirolaria zein Talde Burua.

57. Art.- Doping kontrolak.

- 57.1. Lehiaketa ofizialetan parte hartzeko lizentzia duten kirolariek, autonomia eremuan, derrigorturik daude bai lehiaketan, bai lehiaketaz kanpo, Consejo Superior de Deporteseko Kirolean Osasun babeserako Agentzia Española, hala nola Eusko Jaurlaritzak ezarritako kontrolak egitera.
- 57.2. Derrigortasuna, dopajeagatik, zigorra betetzen ari den, kirol lizentzia ukatu zaion kirolariari ere eragiten dio. Eta beti ere, lizentzia horren birgaitzea baino lehen.
- 57.3. Doping Kontrolak burutzeko eta ahalik eta modurik eraginkorrenean izan dadin, piraguista, entrenatzale, zuzendaritzakok eta klubek, kirolarien ohiko kokapenaren inguruko datuak erraztu beharko dituzte, kontrolak materialki, burutu daitezen.
- 57.4. Kirolariak, entrenatzaleak, zuzendaritzakoak, klubak, medikuak eta gainontzeko osasun langileak, doping kontrolak burutzerako garaian, adierazi egin beharko dute, bere kasuan, kirolariek duten mediku tratamendua, honen ardura dutenek eta eskuragarri dituztenek, beti ere, kirolariak espreski, informazio hori erraztea ukatu ezean.
- 57.5. Kirolariak derrigorturik daude zaintzera edozein bide dela, ez jaso edo hartzera debekaturiko substantziak. Ondorioz, bere organismoan substantziarik antzemanez gero, erantzule izango dira.
- 57.6. Aurreko atalean aurreikusiriko betebeharra hautsiz gero, erantzunkizunak eskatuko dira eta dagozkion neurri diziplinarioak hartu.
- 57.7. Kirolariak, entrenatzaleak, zuzendaritzakoak eta klubak lokalizazioari dagozkion betebeharren haustearren erantzule dira.
- 57.8. Kirolariak, entrenatzaleak, medikuak edo osasun-langileak, zuzendaritzakoak eta klubak, arduradun dira, organo eskudunei kirolariaren balizko gaixotasunen, jasotako tratamendu medikuen eta horien irismena, inguruko informazioa errazteko derrigortasuna erregulatzen dute disposizioen ez betetzeaz, datu horiek erabiltzera baimendua izan denean, hala nola, erabilera terapeutikorako baimenak eskuratzeko ezarritako irizpideak hautsi edo bete ez direnean ere, erantzungo dute.
- 57.9. Araudi honi dagokion lehiaketa esparruan aritzen diren klubek, derrigorturik daude erregistro-liburu bat izatera. Bertan, idatzirik frogagarri utzi beharko delarik, kirolariei errezeptatu eta banaturiko medikamentuak, medikuak agindu eta baimendurikoa, epe eta hartze moduari dagokionez.
- 57.10. Aurreko atalean ezarritako betebeharak, EKF-tzako kirolariei eragingo die, Euskadiko Selekzioarekin erantzunkizunpean daudenean.

58. Art.- Material publizitarioa

- 58.1. Publizitate-material oro kirolaria identifikatzerakoan oztoporik ez egiteko moduan eta lehiaketaren garapena ez eragiteko moduan jarri beharko da.
- 58.2. Ez da onartuko tabakoaren nahiz graduazio haundiko edari alkoholdunen publizitatea.

Azken Xedapena

Araudi hau Eusko Jaurlaritzako Kultura-Gazteria eta Kiroletako Departamentua onartzen duela jakinarazi eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Araudi honek argitzen ez duen kasuetan, R.F.E.P.-ren eta F.I.C.-ren araudia aplikatuko da.

REGLAMENTO GENERAL Y TÉCNICO DE COMPETICIONES

EN VIGOR DESDE el 8 de febrero del 2023

Índice

| | |
|---|-------|
| Art. 1.- Autorización para celebración de competiciones..... | 3 |
| Art. 2.- Organización de competiciones..... | 3 |
| Art. 3.- Competiciones. | 3 |
| Art. 4.- Clasificación de las competiciones..... | 3-4 |
| Art. 5.- Campeonato y Copa..... | 4 |
| Art. 6.- Pruebas..... | 4 |
| Art. 7.- Embarcaciones..... | 4 |
| Art. 8.- Especialidades..... | 4-5 |
| Art. 9.- Baremo de dificultades..... | 5 |
| Art. 10.- Aguas Tranquilas/ Sprint..... | 5-6 |
| Art. 11.- Slalom..... | 6 |
| Art. 12.- Ríos y Travesías. | 6 |
| Art. 13.- Maratón..... | 6-7 |
| Art. 14.- Descenso de Aguas Bravas..... | 7 |
| Art. 15. Kayak Polo | 7 |
| Art. 16.- Rafting | 7 |
| Art. 17.- Kayak de Mar | 7 |
| Art. 18.- Kayak Surf | 7-8 |
| Art. 19. Estilo Libre | 8 |
| Art. 20.- Barco Dragón | 8 |
| Art. 21.- Paracanoe..... | 8 |
| Art. 22.- Piragüismo Recreativo..... | 8 |
| Art. 23.- Clasificación de los y las palistas. | 8-9 |
| Art. 24.- Benjamines..... | 9 |
| Art. 25.- Alevines. | 9 |
| Art. 26.- Infantiles..... | 9 |
| Art. 27.- Cadetes..... | 9 |
| Art. 28.- Juniors/ Juveniles..... | 9 |
| Art. 29.- Sub 23..... | 9 |
| Art. 30.- Seniors. | 9-10 |
| Art. 31.- Veteranos/as / Master..... | 10 |
| Art. 32.- Participación..... | 10 |
| Art. 33.- Deportistas..... | 10 |
| Art. 34.- Deportistas vascos/as..... | 10-11 |
| Art. 35.- Deportistas Extranjero/a: comunitarios/as y no comunitarios/as..... | 11 |
| Art. 36.- Participación de Extranjeros/as en Competiciones Internacionales..... | 11 |
| Art. 37.- Medidas de Seguridad..... | 11-12 |
| Art. 38.- Clubes. | 12 |
| Art-39.- Obligaciones de los Clubes..... | 12-13 |
| Art. 40.- Deportistas. | 13 |
| Art. 41.- Licencias..... | 13-14 |
| Art.42.- Tramitación de Licencias..... | 14 |
| Art.43.- Obligaciones en la Tramitación..... | 14-15 |
| Art. 44.- Validez..... | 15 |
| Art. 45.- Árbitros/as..... | 15 |
| Art. 46.- Denegación de licencias..... | 15 |
| Art. 47.- Comprobación..... | 15-16 |

| | |
|--|--------------|
| Art. 48.- Identificación de los y las palistas..... | 16 |
| Art. 49.- Cambio de Club | 16 |
| Art. 50.- El Comité de Competición..... | 16-17 |
| Art. 51.- Reclamaciones..... | 17 |
| Art. 52.- Apelaciones..... | 17 |
| Art. 53.- Descalificaciones..... | 17-18 |
| Art. 54.- Organización..... | 18-19 |
| Art. 55.- Inscripciones..... | 19 |
| Art. 56.- Trofeos..... | 19 |
| Art. 57.- Controles de dopaje..... | 19-20 |
| Art. 58.- Material publicitario..... | 20 |
| Disposición Final..... | 20-21 |

Art. 1.- Autorización para celebración de competiciones.

- 1.1. No podrán anunciarse, organizarse ni celebrarse en la Comunidad Autónoma del País Vasco ninguna competición oficial de piragüismo sin la previa autorización de la Federación Vasca de Piragüismo (E.K.F.- F.V.P.). Se considerarán autorizadas todas las competiciones incluidas en el Calendario Oficial de la misma.
- 1.2 Aquellas competiciones oficiales de ámbito autonómico que por circunstancias especiales no figuren recogidas en el Calendario Oficial de la E.K.F.- F.V.P., deberán solicitar la autorización correspondiente a la misma y recibir contestación.

Art. 2.- Organización de competiciones.

- 2.1. Las competiciones pueden ser organizadas por la E.K.F.- F.V.P., las Federaciones Territoriales, clubes y toda aquella persona o entidad vinculada con el piragüismo que cuente con la debida autorización.
